
VAUMM taldea, Tabakalerako arkitektura lehiaketako finalista

Bartzelonako bi talde
izango ditu lehiakide:
Montero Madariaga
eta Montero Viar,
eta SOS Arquitectos

Erredakzioa Donostia

Donostiako VAUMM Arquitectu-
ra y Urbanismo taldea, Bartzelo-
nako Juan Manuel Montero Ma-
dariaga eta Naiara Montero Viar
eta hiri bereko SOS Arquitectos
dira Donostiako Tabakalera zen-
troaren berritze arkitektonikora-
ko nazioarteko lehiaketako hiru
finalistak.

Orain, aurkeztutako proiektu-
tuei moldaketak egingo dizkiete,
eta epaimahaikideek berriro az-
tertuko dituzte hiru proiektuok,
azken ebazpena eman aurretik.
Abenduaren amaieran erabakiko
dute zein den irabazlea.

Guztira, 61 proiektu aurkeztu
dira. Egokienak aukeratzeko,
proiektuaren bideragarritasuna
eta aurrekontuen mugak kon-
tuan hartu dituzte, besteak beste.
Epaia ezagututa, bederatzi hila-
bete izango ditu irabazleak
proiektua gauzatzeko.